

GIDA

ZERO FITO BARATZEA



GIDA PRAKTIKO HORREKIN


Baratze naturalari buruzko gida horrekin, Bil ta Garbi sindikatuak, aholku eta abilezia zenbait ekarri nahi dizkizu zikin untziaren pisua murrizteko, zure baratzearendako abantailak erakutsiz.

Egimolde eko-arduradun horiek garatuz, hondakinen ekoizpena mugatzen duzu eta "Zero hondakin, Zero xahutze" lurraldearen eraikuntzan parte hartzen.

▶ KONPOSTATZE BIDEAN LEHEN URRATSA

Hondakin biodegradagarriak konpostatuz (fruitu eta barazki zurikinak, kafe hondarrak, te zakutxoak, ...) gure baratze edota landareentzat ongarri bihurtarazten ditugu.

Horrela, etxe konpostaketari esker, biztanle batek 40kg hondakin saihesten ditu urteka. Konpostaketaren gida praktika atxeman daiteke biltagarbi.fr gunean.



▶ URRUNAGO JOATEKO, BARATZEGINTZA NATURALA

Baratzegintzako beste hainbat hondakin saihesten ahal dira ohitura berriak hartuz :

▶ Produktu fitosanitarioen erabilpena mugatuz, tratatu beharrezko hondakin arriskutsuen kopurua ttipitzen da. **Oharra** : 2019az geroztik partikularrendako produktu fitosanitarioen salmenta debekatua da

▶ Hondakindegira eramaitekoen kopurua murrizten dugu baratzeoko hondakin berdeak berrerrabiliz : lastotzea, konpostaketa, mulching teknika eta xehakina baliatuz...





AURKIBIDEA



4-5 | **HASI BAINO LEHEN**

6-7 | **LURRA ABERASTU ETA URA
AURREZTU**

8-9 | **NATURALKI ARTATU**

10-11 | **LANDAKETAK**

GIDA HORI JEAN-PIERRE AUFFRET-REN
FORMAKUNTZATIK LANDA EGINA IZAN DA,
BERE AHOLKU BALIOSERI ESKER.

HASI BAINO LEHEN

BARATZEA ANTOLATU

Baratzezain "naturalak" bere lorategia gogoetatu behar du : baratzea eguzkiaren arabera zuzendu, konpostagailua gune egokian kokatu, ez sobera eguzkitan eta ez itzal beltzean ere ; sasi, murruxka, ur-tokiak plantan ezarri bioaniztasuna ekartzeko gisan.

TRESNA EGOKIAK ERABILI

▶ Burdin pala, aitzurrotxa eta sarde itzulariarekin lurra lantzen ahalko duzu arrunt irauli gabe eta bide berean lurraren egitura nahasi gabe.

▶ Eskuz belar txarraren kentzeko jorraia erabil dezakezu.

▶ Ereintzeko mementoan, soka mehe, jorraia eta ereintza kutxari esker ereintza xuxenak egiten ahalko dituzu, belarraren kentzeko errexagoak.

BARATZEAZAINAREN EKO-JESTUAK

▶ Beharrezkoa baizik ez erosi eta pentsa ganer huste edo interneten bigarren eskuko salmenta guneel, gastuak apalduz behar duzuna atxemaiteko.

▶ Zure tresneria ongi zaindu epe luzeagoan iraun dezan (untsa bildua, garbitua).

▶ Noizbehinkako erabilpenentzat (adib : tronza zerra, xehagailua), tresna erosi ordezt, mailegatu (lagun, familia edo auzoeri) edo alokatu.

▶ Pana gertatzen baldin bada, ez berehala zure tresna bota, pentsa konponketari ! Konpontzaileen aurkibidea atxeman dezakezu biltagarbi.fr gunean. **BILTAGARBI.FR**



HISTORIO TTIPIA

Jean Grelin-ek asmatua, grelnetak baratze gintza naturala gorputzen du. Bere bi gider eta Sedo5 hortekin, lurra aireztatzen du irauli gabe eta manara hortan lurreko estaldura ezberdinetako bizi biologikoa zaintzen. Behin eta lurrean sartuta, gielerrak aitzinetik gibelerat ekartzan dira, akitu gabe... edo kasik.



ABILEZIAK I

Zure lur sagar, lirika edo pasten egosteko erabili duzun ura lur ezazu belar txarren gainerat. Haatik teknika hori minberak ez diren guneetan baizik ez da erabili behar : bidexka, terraza, eskaleraek...



BIOAINIZTASUNA GARATU BARATZEAN

Kattalin-gorri, txori, ipur-sarde edo sagarriok jaten dituzte baratze suntsitaileak, hala nola bare eta landare zorriak ; beraz baratzezainarentzat lagungarriak dira.

Adibidez, amilotxak harrapatzen ditu zuhaitzetako beldar eta zorriak, eta birgarroak atakutzen bare eta beste karkoilak. Laguntzaile preziatu horien etorrarazteko, aterbeak utzi behar zaizkie baratzean.

HESIAK, LILIAK, GUNE BASAK

▶ Gune trinko horietarat etortzen dira txori mota asko eta lurrerat erori hosto hiletan babestuko dira kattalin-gorri eta kakamarloak, besteak beste.

▶ Lilietan eta beren fruituetan bazkatzen dira marmutxa polinizatzaileak eta txori frango, negu undarretik goiti goiztiarrenentzat, udazkena amaitu arte.

OHANTZE ETA ATERBEAK

▶ Ohantze bat ezartzen ahal duzu zure baratzean txorien ekarrarazteko, eta ekilili haziak baita ura eman diezakezu beren laguntzeko negua pasatzen.

▶ Hesietako abar zama eta landare barne hutsetan babesten ahaliko dira sagarriok eta beste landare zorri jale marmutxak.

▶ Fruitu arbola eta arrosa landareetan, belar idorrez beteriko lore ontziak zintzilikatu : ipur-sardeak jinartzeko, landare zorri jale handiak baitira.

▶ Marmutxa etxefoak ere egin ditzazkezu (erle bakartiarren, kattalin gorri eta krisopen neguko loarentzat).



LURRA EZAGUTU

Lan egiten hasi aitzin, baratzezainak lurra behatu behar du (bere testura, egitura, pH-a) :

▶ **Buztintxua dea ?** Irazgaitza izanki, ura ongi atxikiko du baina erroen sartzea zaila izanen da.

▶ **Hareaduna ote da ?** Irazkorra da, beraz usu ureztatu beharko da baina ezin hobe da pastanagre eta erro-landareen pusa arazteko.

▶ **Xixareak asko direa ?** Lur aireztatua eta biologikoki bizia den seinale da.

LURRA ABERASTU ETA URA AURREZTU

LASTOTZEARI PENTSA

Lastotzea lurra elikatzen eta babesten duen teknika bat da, materia organiko edota mineralekin estaliz. Ekai horiek landare eta lore multzoen oinetan hedatuak dira. Mota ezberdinez egin daiteke lastotzea, belar mozketekin, hosto hilekin eta baratzeko hondakinen xehakinarekin...



LASTOTZEAREN ABANTAILAK

- ▶ Behargabeko beharren hazketaren murrizketa.
- ▶ Ureztatze beharren murrizketa, lurraren hezetasuna atxikiz.
- ▶ Materia organikoaren ekarpena ziurtatzen dio lurrari, bere bizi biologikoa lagunduz eta bere kongresioa murriztuz.
- ▶ Udako berotasuna eta neguko hotzaren aurkako babesa da.



"MULCHING" PRAKTIKA

"Mulching" deitu teknika, zolaren ongarrizatzeko teknika naturala da, belar freskoa barreiatuz. Belar mozkaile berezia erabiliz (karter hetsia eta funtzio bikoitzako lama) belar xehakina bertan egonen da : biltze lanak kentzen ditu.



"MULCHING" TEKNIKAREN ABANTAILAK

Zola ongarriztzen du : belarraren %90a ura izanik, hondaketa naturalki egiten da eta zola elikatzen du.



ONGARRI BERDEAK ERABILI

Ongarri berdeak, uztaren ondotik lurra okupatuko dituzten hazkunde haundiko landareak dira, hala nola mustarda, artobeltza, babak, fazelia...



ONGARRI BERDEEN ERABILPENAREN ABANTAILAK :

- ▶ Lurren atxematen diren elementu etikagalak atxikitzen dituzte landareentzat, eurak eragintzen duen galera saihestuz.
- ▶ Zolak aberasten dituzte beren egitura azkartuz : ezinbesteko baldintza lurra emankorra izateko.
- ▶ Behargabeko beharren garapena murrizten dute.



EMENDAKINAK GEHITU

Emendakina, lurriari gehitzen zaion jatorri minerala edo organikoa duen produktua da.



EMENDAKIN MINERALENABANTAILAK

Zelen minkordura neutroagoa bilakarazten dute. Horela, landareek, elementu mineral gehienak hobekiago asimilatzen dituzte eta lurren konpresioa murrizten dute. Adibidez:

- ▶ Gisua minkordura gelditzeko
- ▶ Hondarra buztin lurren arintzeko
- ▶ Egur errautsa %5a potasio, eta fosforo eta burdinaz osatua da.



EMENDAKIN ORGANIKOEN ERABILPENAREN ABANTAILAK

Emendakin organikoak, landare eta abereen gorotzen usteltzetik heldu dira. Zola egiturazten dute airea eta uraren zirkulazioa lagunduz. Sustraiak hobekiago sartzen dira eta lurrak ongarriztatuko duten elementuak atxikitzen dituzte.

Ongarria metan edo konpostagailu batean egin daiteke, baratzeko iskin batean. Informazio gehiagorekin ukaiteko BILTAGARBI.PR gunea bisitatu.



EURI URAK BERRESKURATU

Landareen osasun ona ziurtatzeko ureztatu behar dira. Eurien urak bilduko dituen urtegi batekin, ur ainitza eta urririk lortzen da.



ERA NATURALEAN ZAINDU



IRATZEA

IRATZEA BAREETAZ BABESTEKO ATERABIDE ON BAT DA.

Iratze hostoak usteltzerakoan, bareak eta kurkuiluak erakarri eta pozoitzen dituzte hedatzen duten gasari esker. Ongi ustelduta, lurrarekin nahasten ahal dira horren aberasteko. Udazkenaren bukaeran kokatu eta udaberria arte utzi.

ZEREN AURKA ?

Asun pixora landare zorri eta akaroen aurkako aterabide ona da. Eritasun batzuk saihestuko ditu ere.

HORREZ GAIN, ASUNAK ERABILTZEN DITUT ONGARRI NATURAL GISAN.

Asun mazerazioak landareen hazkundera lagunduko du eta haien defentsa naturalak azkartuko.

10 litro ur har ezazu eta kilo 1 asun eman ezazu barnean. Mazeratzen jarri hilabete batez eta hola erabili landareen oinetan. Asunen hostoak konpostan utziz, nahasketa aberastuko du. Era berean, asun hostoak ematen ahal dira tomate landarea hartuko duen zuloan. Tomatearen azota beharrak beteko dituzte. Ondoko astetan, hosto batzuk ematen ahal dira landarearen oinean horren elikatzeke.

ZEREN AURKA ?

Iratze pixorak landareen zorriak joan arazten ditu. Akaro, kukurutxa, zikadela eta kakalardoan aurka ere erabilgarria da.

NOLA ERABILI ?

Kilo 1 iratze 10 litro uretan eman eta 10 egunez utz ezazu.

Iratze pixora barazki, fruitu edota loretan lainoztatu. Nahasketak aste bateko efektua izanen du. Landare zorri guziak desagertzen ez badira, operazioa errepikatu.



ASUNAK

NOLA ERABILI ?

10 litro ur har ezazu eta kilo 1 asun eman ezazu barnean. Mazeratzen jarri 2 astez eta filtro batetik pasatu. Diluitu ezazu : pixor bolumen bat eta 9 bolumen ur. Hostoak lainoztatu.

Mazeratzen utzitako landare aterakina? Ongarri gisa erabili daiteke. Horrez gain fungizida on bat da eta intsektuen aurka efikaza da ere.



AZERI BUZTANA

ZEREN AURKA?

Azeri buztana irakina fungizida ona da eta ondoei loturiko eritasunak tratatzen ditu : mildiu, herdoildura, oidioa, pintzak...

NOLA ERABILI?

200 gramo azeri buztana xehatu. 2 orduz mazeratzen utzi 2 ur litrotan. Irakitzera eman 30 minutuz. Hotza delarik filtra ezazu. Mildiu ez harrapatzeko eta "Bordaleko bulliga"ren ordeztu, tomate landarearen hostoak lainoztatu astean behin, hiru astez, lehen egunetik hasita. Hortik haratago gainerakoa bota ezazu.

ZEREN AURKA?

Salbiaren irakinak tomate landarearen (eta besteen) mildiua zaintzen du.

NOLA ERABILI?

Krema erdiko esne litro 1 irakitzera eman. 100 gramo salbia sendagarria bota irakitzera ari den esnean eta 30 minutuz utzi, su apalean. Hotza delarik, diluitu ezazu : prestaketa bolumen bat eta 9 bolumen ur. Oraindik sano diren hostoak eta oinak lainoztatu. Andeatzen hasi diren beste guzikiak kendu (tomateak ere) Nahasketa hau ondoko 24 orduetan balia ezazu.

SALBIA SENDAGARRIA



LANDA LEKUAK



BEHAR EZBERDINAK DITUZTEN LANDAREAK ALDIZKATU

Urte batez, sustrai landareak ematen badituzu (lur sagarrak...) ondoko urtean hosto-landareak aukera itzazu leku berean emateko (ziazerba...) eta alderantziz. Haien beharrak leku desberdinetan bilatuko dituzte.

- ▶ **Fruitudun landareak :** kukurbitazeoak, artoa, ilarrak...
- ▶ **Loredun landareak :** azaloreak, ongarrri berdeak loraketa arte.
- ▶ **Hostodun landareak :** azak, espinakak, entsaladak, porruak...
- ▶ **Errodun landareak :** lursagarrak, apioak, beterrabak (arbi gorriak), tipulak, pastanagreak...

LANDAREAK ALDIZKATU

FAMILIA BOTANIKOAK ALDIZKATU

Ez ezazu landare familia berdina eman lurra berean bi urtez baino gehiago. Alabaina, eritasunak eta harrapariak usu ber familiako landareetan antzekoak bait dituzte.

HORREZ GAIN, LANDAREGINTZA BATZUEK BESTEK BAINO ONGARRI GEHIAGO BEHAR DUTE :

- ▶ **Landaregintza ongarrri galdegileak :** itsas udarea, orburua, arbi gorria, pastenagrea, apioa, aza, kuia-luzea, kuiatxoa, espinaka, mihilua, arrega ondoa, artoa, tipula, porrua, biperhandia, lur sagarra, arabarba, tomatea.
- ▶ **Landaregintza ongarrri behargabeak :** baratxuria, tipulatxa, zainzuria, perraitza, luzokertxoa, iturri belarra, baba, ilar leka, letxuga, ardi-mihia, ilara, erradia, entsalada
- ▶ **Landaregintza ongarrri behar neurritzkoak :** gainerateko barazkiak

FAMILIA BOTANIKO NAGUSIAK:

- ▶ **Chenopodiaceae :** beterraba, espinaka, zerba...
- ▶ **Asteraceae (edo Compositae) :** orburua, endibia, uraza...
- ▶ **Brassicaceae (edo kruziferoak) :** aza, arbia, arbitxoa...
- ▶ **Cucurbitaceae :** kulaluze, kulatxo, meloia...
- ▶ **Fabaceae (edo ilarbuak) :** ilar leka, dilista, ilar bibrila...
- ▶ **Liliaceae :** frantzes porrua, tipulina, porrua...
- ▶ **Asplacae (edo onbiferroak) :** pastanagrea, apioa, perexila...
- ▶ **Solanaceae :** biperria, biper handia, tomatea...



LANDAREAK PARTAIDEZTU

Auzotasun batzuk baikorrak dira barazkientzat, beste batzuk aldiz ez. Adibidez, pastenagreak, porruaren eulia urrunduko du eta alderantziz. Bat bestearen ondoan kokatzea aholkatua da.



AUZOTASUN BAIKORRAK

ARBI GORRIA

Apioa, aza, letxuga, tipula

PASTENAGREA

Tipulina, porrua, erradia, tomatea, perrexila

KUIATXOA

Basilikoa, artoa, lur sagarra

KUIA LUZEA

Zain zuria, aza, tipulina, letxuga

**ARREGA,
MARRUBIA**

Baraxuria, espinaka, letxuga, arbia, tipula, xarbota

**ILARRA,
BABARRUNA**

Itsas uderea, pastenagrea, apioa, aza, espinaka

LETXUGA

Arbi gorria, pastenagrea, marrubi ondoa, erradia, porrua

PORRUA

Zainzuria, pastenagrea, mihlusa, marrubi ondoa, tomatea

AUZOTASUN EZKORRAK

Zainzuria, pastenagrea, porrua, tomatea

Arbi gorria

Erradia

Lur sagarra, erradia, tomatea

Aza

Baraxuria, erbi gorria, tipula

Perrexila

Arbi gorria, aza, perrexila, ilarra, biper-handia

GELDI GITEN ITXOITEN, HONDAKINEN MURRIZKETAREN ALDE JOKA DEZAGUN



BIL TA GARBI SINDIKATUAK LAGUNTZEN ZAITU

KONPOSTAGAILUA NOLA LORTU ?

BILTAGARBI.FR en sartu edo mezu bat bidali **contact@biltagarbi.fr** helbidera



Haratago joateko
beste webguneak

- www.jardinbotanique-saintjeandeluz.fr
- www.ansot.bayonne.fr
- www.terrevivante.org
- www.jardineraunaturel.org
- www.binette-et-cornichon.com (rubrique purins et décoctions)



Communauté de Communes
Béarn des Gaves
Territoire de partage

**bil ta
garbi**

7, Joseph Latxague karrika
BP28555 - 64 185 Baintza cedex
BILTAGARBI.FR